

Diskurtsoaren markatzaileak (63.-64. unit.)

1. ariketa

Bete hutsuneak, erantzunik egokiena aukeratuz.

Oso lodi nago: 130 kilo pisatzen dut, eta, **1** *jakina*, horrek nire bizitza izugarri zailtzen du. Arropa dendetan, ez dut gustuko arroparik aurkitzen; ez dute guretzat ia ezer egiten; niri behintzat,

2, medikuarenera joatea erabaki dut. Ezarri didan dieta oso gogorra da: **3**, ez daukat kafeari azukrerik botatzerik, eta ezin dut gozokirik jan, ezta ardorik edan ere. Bazkaritan eta afaritan ezin dut ogirik jan, **4**

Gosaritan nahi dudana beste kafe edo te hartzea daukat — azukrerik gabe, **5** — eta ogi xerra bat, marmelada pixka batekin. Eguerdian bi fruta ale jan ditzaket, baina ahaztu egin behar ditut tortilla pintxo goxoak.

Ahal dudana guztietan etxera joan behar dut bazkaltzera, **6** jatetxeetan ez baitago jaten dudana kontrolatzerik. Ezin dudana egunetan, entsaladak edo barazkiak eskatu behar ditut lehenengorako eta plantxan egindako okela edo arraina, bigarrenerako. Ahal badut, postreik ez jateko esan diot medikuak.

7, paseo luzeak egin behar ditut azkar ibiliz eta ariketa fisiko gogorragoren bat: igeriketa... Astean birritan igerilekura joango naizela esan diot medikuari.

8, medikuak esandakoa zehatz-mehatz betez gero, hiru bat hilabetetan hamar kilo kenduko ditut.

	1	2	3
<i>jakina</i> dena den zorionez	itxuraz hala iruditzen zait aldiz	Azkenean Ondoren Alde batetik	dena dela antza denez besteak beste

4	5	6	7	8
ostera zer esanik ez besteak beste	ona litzateke noski hala ere	derrigorrean segur aski bere ustez	Horrez gain Ondorioz Hasteko	Tamalez Nolanahi ere Horrela

2. ariketa

Berridatzi esaldiak, antzeko esanahia duten lokailuak erabiliz eta moldaketak eginez.

- Unai oso berandu etxeratu zen bart; hobeto esanda, goizean goiz heldu da.
a alegia: *Unai oso berandu etxeratu zen bart, goizean goiz heldu da, alegia.*
b hots:
- Europar Batasuneko legea aplikatzeko eskatu du elkarte batek, izan ere, bi urte daramate indarrean jarri gabe.
a -ela kausa:
- Batzarrean guk eginiko proposamena ez dute onartu, baina ez gaitu kezkatuko horrek, ez gaitu geldituko.
a dena den:
- James gobernadore izan zen kolonia txiki batean. Horrez gain, merkataritza enpresa baten jabea izan zen.
a ez ezik... ere: